

Martxoak 8ko manifestua.
Emakumeen Nazioarteko Eguna

Feminismoari esker
gaur izan, egon, esan
eta erabaki dezakegu



Irakurketa Errazean

Martxoaren 8a dela eta,
Nafarroako toki eta lurralde entitateok
dokumentu hau idatzi dugu.

Nafarroako toki eta lurralde entitateak

Nafarroako gai publikoak
kudeatzen dituzten erakundeak dira,
adibidez, udalak.

Martxoaren 8a

Emakumeen Nazioarteko Eguna da.

Dokumentu honetan,
Nafarroako toki eta lurralde entitateek
eta genero-berdintasunaren arloan
lan egiten dugun profesionalok
mezu argi bat eman nahi dugu.

Genero-berdintasuna gizon eta emakumeok
eskubide berak izatea da.



Gure mezua:

Emakumeen borrokari esker
eta mugimendu feministari esker
emakumeek lehen baino eskubide
eta askatasun gehiago dituzte.

Zer da feminismoa?

Feminismoa mugimendu bat da.


Mugimendu horrek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzen du.

Feminismoak jendartea aldatzen lagundu du eta pertsona guztien bizitza hobetu du.

Ez da moda bat.

Ez da berehala ahaztuko dugun ideia bat.

Berdintasunaren aldeko borroka zerbait historikoa da.



Zer lortu du feminismoak?

Feminismoari esker, gaur egun emakumeek aukera hauek dituzte:

- Bozkatu eta politikan parte hartu dezakete.
- Baldintza berdinetan ikasten dute, hau da, emakumeek eta gizonek aukera berak dituzte eskolara, unibertsitatara edo beste ikasketa lekuetara joateko.
- Lan egin dezakete eta beren dirua irabazten dute.
- **Dibortziatu** daitezke, hau da, bikotearengandik banandu daitezke.
- Askatasunez mugitzen dira.
- Norbere gorputzari buruz erabakitzen dute.



Feminismoari esker ere
zaintzak oso garrantzitsuak direla aitortzen dugu.

Zaintzak dira, adibidez,
adineko pertsona bat zaintzea,
degaitasuna duen pertsona bat zaintzea
edo haurrak zaintzea.



**Zaintzarik gabe
bizitza ez da posible.**

Honek esan nahi du pertsona guztiok
bizitzako momentu batzuetan
beste pertsona baten laguntza behar dugula.

Eskubide hauek ez dira opari bat.
Emakume askok
urte askotan zehar
lan egin, ikasi eta borrokatu zuten
eskubide hauek lortzeko.

300 urte baino gehiagotan zehar,
emakume asko antolatu dira
justizia eta berdintasuna eskatzeko.



Nolakoa da gaur egungo egoera?

Feminismoaren kontra aritzen diren pertsonak daude.


Gaur egun badaude pertsona batzuk esaten dutenak berdintasuna jada lortuta dagoela.

Baina mezu horiek ez dira egiazkoak. Gainera, lortu ditugun eskubideak arriskuan jar ditzakete.

Benetako berdintasuna oraindik ez da guztiz lortu. Horregatik beharrezkoa da berdintasunaren alde lanean jarraitzea.

Uste dugu feminismoak jendarte osoaren bizitza hobetu duela, ez bakarrik emakumeena.

Horregatik Administrazio Publikoek feminismoaren balioa aitortzea eskatzen dugu.



Zer egingo dugu?

- Feminismoak lortu duena azaltzeko informazio kanpainak egingo ditugu.
- Egiazko informazioa emango dugu feminismoaren aurkako mezuak daudenean.
- Tokiko politika publiko guztietan berdintasuna sartuko dugu.
Politika publikoak
pertsonek bizitza hobetzeko Administrazio Publikoek hartzen dituzten erabakiak eta ekintzak dira.
- Berdintasunean eta giza eskubideetan hezkuntza indartsuago egingo dugu, batez ere gazteen artean.
- Mugimendu feministaren lana eta emakumeen elkarleen lana aitortu eta babestuko dugu.



Zer lortu nahi dugu?

Ekintza hauekin:

- Nafarroa justuagoa izatea nahi dugu.
- Berdintasun handiagoa izatea nahi dugu.
- Pertsona guztiek parte hartu ahal izatea nahi dugu.



Laburpena

Feminismoari esker
eta pertsona askoren borrokari esker
gaur egun emakumeok
eskubide eta askatasun gehiago ditugu.

Feminismoari esker,
gaur izan, egon, esan
eta erabaki dezakegu.

Texto adaptado y validado por la Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra de ANFAS.



Logo europeo de lectura fácil: "© European Easy-to Read Logo: Inclusion Europe.
Más información en: <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>

oacna

Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra

